



BICI BEDI JESUS.

**MISIO SANTUETARACO  
CANTAC.**



**TOLOSAN.**

Sarruchagaren moldizteguian.  
1879-garren urtean.

ATV

10 108



H-25831

R-40601 +

JATV  
10.108

BICI BEDI JESUS.

**MISIO SANTUETARACO**

CANTAC.



**TOLOSAN,**

Pedro Gurruchagaren moldizteguian.

1879-garren urtean.



*Jaungoico Santua,  
Jaungoico fuertea,  
Jaungoico inmortala,  
Gaitz guztietatic  
Libra gaitzatzu, Jauna.*

# PECATARI BATEN

IZQUETA MIÑA.

1 **J**esusec pecatariai  
Deitzen die miñiorá:  
Atozte baten itz miñac,  
Guciac aditzerá.

*Jesus ona, biotz beraá,  
Arren nizaz erruquí:  
Ez gueyago pecaturic;  
Eguña damu det nic.*

2. Gau ta egun ¡ay! beldur bat  
Beti det biotzean,  
Pecatuan ilco naizan,  
Ta amildu infernuan. *Jesus ona*

3. On ona, dio San Pedroc,  
Nequez salvatuco da:  
Guizon oquer gaiztoaquin

¿Cer izango da bada? *Jesus*

4. Dabidec, ta Magdalenac  
San Pedroc, lapur onác,  
Negarrez urtu citúzten  
Beren gaizqui eguiñac. *Jesus*

5. Baña oyec, ta besteac  
Negarrac beguietan,  
Ta damua cerabilten  
Quen gabe, biotzetan. *Jesus*

6. ¡O negarrac! ¿non cerate?  
¿Non cera zu damuá?  
¿Noiz artean nie gogórta  
Izango det biotza? *Jesus*

7. Infernura ni banóa  
Betico suetará,  
¡Ay, ay nizaz! ¡ay! betico  
Eguin zan ya nereca. *Jesus*

8. An erretzen, an quiſcaltzen  
Egon bearco det nie,  
Seculan icusi gabe  
Atseguínen piſcaric. *Jesus*

## JESUCRISTOREN PASIOA.

¡Jesus neque-pean!  
 ¡Jesus larrituric!  
*¿Beguiac nolatan*  
*Eztauque negarric?*

1. ¡Ay, nor legoqueán  
 Negarrez urturic,  
 Jesus icusiric  
 Neque samiñetan!  
 Jauna nequeetán,  
 ¿Ni berriz otz otzic? *Beguiac*

2. ¡Ay nola dagoan  
 Jaun ona etziñic,  
 Morroi bat eguiñic,  
 Judasen oñetan,  
 Ceñec bera daucan  
 Añ merque salduric! *Beguiac*

3. Judasec, guizonác  
 Jesus artutzecó,  
 Ta albadu, galtzecó,

Dacarzqui gaiztoac.

Algarazca berác

Dacarde loturic. *Beguiac*

4. Jesus, nola zoaz

Etsayen mendeán?

Zu or socapeán

Guizonen on-naiz,

Ta guizonac berriz

¡Ay! zacur eguiñic. *Beguiac*

5. Anasen aurrean

Jotzen du morroyac,

Ta guero besteác

Dabiltzco gau artan

Batean besteán

Jotzen zoraturic. *Beguiac*

6. Pilatos zoroa,

Cer dec ie gogocó?

¡Jesus zatitzecó

Dec asmo gaiztoa?

¡Ay! dago gañoá

Arrira loturic. *Beguiac*



7. Aranzaz galduá  
 Dauca Jesus onác  
 Burua: guizonác  
 Galduta biotzá.  
 ¡Ay! Jaunac ez daucá  
 Guizonaren antzic. *Beguiac*

8. Zur astunarequin  
 Asten du bidea,  
 Nai det nic, jabeá,  
 Or joan zurequin.  
 ¿Cer, Jauna, zacuzquit  
 Gaiztoz lagundurie? *Beguiac*

9. Iltze lodiaquin  
 Gurutzcan josirie,  
 Dago esquirie  
 Oñace latzaquin.  
 Jesus oñacequin,  
 ¿Bai ta ni gogorric.? *Beguiac*

10. Jesusec escatú  
 Dio, bai, Aitari,  
 Bere erallari

Deyola barcatú,  
 Erallac guera gú,  
 Pecatu eguiñic. *Beguiac*

JESUS GURUTZEAN JOSIARI.

Jesus gure Jaun maite  
 Amoriotsuá,  
*Damu degu gucioc*  
*Zu ofendituá.*

1. Josirie icustean  
 Gurutze orretan Zú,  
 Urricariz biotzá  
 Norc urratuco ez dú?  
 Baita baleuca ere  
 Arri biurtuá. *Damu*

2. Burutic oñetára  
 Gorputz eder ori  
 Zauri bat eguiñican  
 Dezu guci ori.  
 ¡Ay! zori gaiztocoa  
 Gure pecatua! *Damu*

3. Oñac, escu, ta alboa  
 Burniz zulaturic,  
 Bizcar-aldea azotez  
 Dana zatituric:

Aranza gogorraquin  
 Josiric burua. *Damu*

4. Aimbeste miñ gogorrez  
 Eririe ceralá,  
 Artzai bat ardiáren  
 Ondoren becelá,  
 Gure billa zabiltza  
 Erruquiz urtuá. *Damu*

5. Jesus zu gure billa  
 Ta ¿guc ignez zuri?  
 Gure bear cerála  
 Zu, Jauna, dirudi.  
 ¿O guizon esquer gabe  
 Gaizto zoratua! *Damu*

6. Jauna ¿cer galtzen dezu  
 Gu ezac galtzeán?  
 ¿Gu gabe zu etziñan

Betico guztian?

¿Cerc zaduzca gu gána

Örren laztantsua? *Damu*

7. Eciñ eguiñ guentzáque

Zu gabe batere,

Ezta inolan eman

Asnasa bat eré,

Zu ondasun guztien

Sustrai ta buruá. *Damu*

8. Au onela jaquiñie

Bici izan naiz ni

Beti urrin zu-gandic,

Zure igues beti?

¡Ongui nenducan hurrác

Nombait ichutuá! *Damu*

ANDRE MARIARI ESCARIAC.

1. Pecatarioc Ama,

Virgíña, zaitugu:

Zugan gure biótza

Guc ipintzen degú.

*Eguizu zuc, Maria*

*Gugatic erregu,*

*Eriotzaco ordúan*

*Ez gaitecen galdu.*

2. Zure icen santúa

Balia bequigu,

Zure biotz onean

Ustea guc degú. *Eguizu*

3. Seculan inor ézta,

Ta bai, Maria, zú,

Ama izan ezquéro

Doncella guelditú. *Eguizu*

4. Jaungoicoaren Ama

Eguñic zacuzgú:

Arren zure semétzat

Ezagu gaitzatzú. *Eguizu*

5. Zure semeac gaitu

Cerutic billatu:

¿Nola zuc naico dézu

Gu gaitecen galdu? *Eguizu*

6. Lagun zaiguzu báda,  
Ditzagun garbitú  
Biotzac, pecatúan  
Ez gaitecen lotú. *Eguizu*

7. Pecatu eguin degu,  
Orrez degu damú:  
Argatic ez gaitécen  
Infernuan sartu. *Eguizu*

8. Alperrie infernuac  
Artuco du damu;  
Orain, guero, ta beti  
Zureac guera gú. *Eguizu*

9. Ceruraco bideá,  
Virgiña, eera zu;  
Ara joango dánac  
Billa bear zaitu. *Eguizu*

# AMA VIRGIÑA DOLORETACOARI.

1. Agur dolorezco  
Ama larritua,

Erreguiña laztan

Erruquiz urtua.

*Ar gaitzatzu, Ama,*

*Seme necatuac.*

2. ¡O Raquel ederra

Nequez asetua!

Gu semcoc gaude

Negarrez urtuac. *Ar gaitzatzu*

3. Zure viotzeco

Gañibet sutsuac

Sartu disquitzute

Gure pecatuac. *Ar gaitz*

4. Orregatic gatoz

Guciz damutuac,

Garbi nai degula

Anima loitua. *Ar*

5. Gure zorionac,

Virgiña prestua,

Cerorren bitartez

Ditugu artuac. *Ar*

6. Zure ezpatac dira

Arma zorroztuac,  
 Guciz puscatzeo  
 Diabru galduac. *Ar*

7. Icusi nai degu,  
 Guc erbestetuac,  
 Zure seme maite  
 Jesus gozotsua. *Ar*

8. ¡O Ama biguña!  
 ¡O erruquiorra!  
 Arren gu gaitean  
 Ceruan sartuac. *Ar*

## ELIZARACOAN.

### ESTRIBILLOA.

*Ardi galduen billa*  
*Jesusen partetic*  
*Gatoz predicatzera*  
*Erruquiz beteric.*

1. Elizaco artaldean  
 Sartzen baditugu,



Gure neque guciac  
Aztuco ditugu.

2. Chit asco nay ditugu  
Gue peccatariaac,  
Adierazotzeco  
Jaincoaren deyac.

3. Atozte bada, atozte,  
Jesusen deycera,  
Miñioco Sermoyac  
Gogoz aditzera.

4. Ieusico dezute  
Cer dán peccatua,  
Cer dán eriotza, ta  
Cer dán Infernua.

5. Sermoiria ecartzea  
Logratzen badegu,  
Zuen conversioa  
Seguru daucagu.

6. Beldurtasun santu bat  
Gure Sermoyetan  
Sartuco dizugute

Zuen viotzetan.

7. Beldurrac samurtuta,  
Guero esperantzac  
Consolatuco ditu  
Gucion viotzac.

8. Pecatuan zautenac  
Orain ichuturic,  
Gueldituco cerate  
Santu biurturic.

9. Ala guertatu dedin  
Esca diozagun  
Jaunari gracia, ta  
Esan diozagun.

10. Gloria Aitari, ta  
Bere Semeari,  
Espiritu Santua,  
Baita ere Zuri.



# ELIZATIC IRTETEAN.

ESTRIBILLOA.

*Ama dolorez betea,  
 & Bada posible aurquitzea  
 Erruquituco ez danic  
 Zu orrela icusiric  
 Aimbeste penen artean*

*Gurutzearen oñean?*

1. Ama izán ceratenac,  
 Beguira Ama onen penac  
 Ecusiric guztia  
 Jesus iltzez jossia  
 Bi lapur oyen erdian  
 Calvarioco mendian.

2. Ongui ezpata zorrotzac  
 Pasa dú Zure viotza:  
 Orrá peccataria  
 Eman dizun sariya,  
 Jesusen Ama Maria  
 Ama lastima-garria.

3. Gurutzearen oñera  
 Atozte parte artzera,  
 Trance gogor onetan  
 Mariaren penetan:  
 Beti da atseguin-tasuna  
 Pena aundietan laguna.

4. Gaur consolatzan badegu,

Guero icusico degu  
 Gueren trance estuan  
 Eriotzaco orduan  
 Gu consolatzen Maria  
 Ceruco Erreguiña aundia.

5. Ontasun utsa cerana,  
 Guztioe gatoz Zugana,  
 Pecatuac utziric  
 Esperanzaz beteric,  
 Esaten gogoz Salvea,  
 Ama graziaz betea.

6. Zure misericordia  
 Izanican aín andia,  
 Justu da esperatzea  
 Zurequin bicitzea  
 Ceruetaco glorian  
 Eternidade guztian.  
 Amen.

## SALVEA.

Jaungoicoac salva zaitzala,  
Erreguiña,

Misericordiaren Ama

A. Bicitza, dulzura ta gure es-  
peranza,

Jaungoicoac salva zaitzala.

Zure deyez gaude

A. Evaren ume desterratuac

Zu-gana gaude suspirioz

Sentimentuz, eta negarrez

A. Negarrezco valle onetan

Ea bada, Señora,

Gure abogada,

A. Itzuli itzatzu gugana

Zure begui misericordioso oriee,

A. Eta destierro au igarota

Eracutsi eguiguzu Jesus,

Zure sabeleco frutu

Bedeincatua,

A A. ; O Clementisima!  
 A A. ; O piadosa!  
 ; O dulce Virgiña Maria!  
 Erregutu ezazu gugatic,  
 Jaungoicoaren Ama santa  
 A A. Mereci dezagun,  
 Alcanzatzea  
 A. Jesu-cristoren promesac  
 Amen Jesus.

## ESTRIBILLOA.

*Pecatuaren mendi illunean*  
*Zabiltzana galduric,*  
*Jesus dator zuregana*  
*Artzai on bat eguiñic.*

1. Ardi galduaren billa  
 Etorri zan Cerutic,  
 Zure billa bialtzen gaitu  
 Zu convertitzeagatic.

2. Jesusec deitzen zaitu

Ceruco zuzen videtic,  
 Adi itzatzu aren itzac  
 Galdu ez izateagatic

3. Atoz bada mišiora,  
 Non nai dizun hitz eguiñ  
 Beardezuna salbatzeco,  
 Jaquin zazun cer eguiñ.

4. Penitencia eguin beardu  
 Pecatuaz munduan,  
 Nai ez duenac penatu  
 Condenatuen artean.

5. ¿Graciaren gloriaren  
 Non dituzu ondasunac?  
 Pensazazu cer eguinduten  
 Zure animan pecatuac.

6. Demonioaren ichura  
 Artu dezu zuregan,  
 Pecatuac itzuli zaitu  
 Jaungoicoaren etsaitan.

7. Ill beardegula gucioc  
 Esaten digu fedeac,



Orain ibilli ditzagun  
 Ceruraco videac.

8. Dala guztiz preciosoa  
 Jaunaren beguetan  
 Justuaren eriotza,  
 Leitzen da libruetan.

9. ¡O cer cargu estua!  
 ¡O cein contu zucena!  
 ¡O cein sententia justua!  
 ¡O cer biotzeco miña!

10. Emango dan sententiac  
 Eztu apelacioric,  
 Infernura edo cerura  
 Joango cera zucenic.

11. Ongui ongui esamiña  
 Eguin ezazu lendanic,  
 Gueldi ditecen pecatuac  
 Beingoaz barcaturic.

12. Lotsaz uzten badituzu  
 Aita Confesoreari,  
 Infernuan esango diozu

Lucifer condenatuari.

13. Jaungoicoa ofendituaz  
Ez badezu damuric,  
Barcatuco etzatzu  
Batere pëcaturic.

14. Propositu firme bat  
Ez herriz ofenditzeco,  
Eguin ere beardezu  
Pecatuac barcatzeco.

15. Ocasio chit peligroso  
Pecatu eguitecotie,  
Apartatu bear cera  
Guci gucietatic.

16. Infernuco tormentuac  
Eduqui itzatzu gogoan,  
Etzaitecen crori  
Luciferren ondoan.

17. Pensa zazu infernuan  
Bay, nere cristaua, bay,  
Etzoacen esatera  
¡Ay nere tristea ay!

18. Sua, otza, ta gosea  
 Da infernucó janaria,  
 Ardo bortiz samiña  
 Condenatuen edaria.

19. Paraisoco gozoac  
 Beti beguiraturic,  
 Munduco gusto guciac  
 Utzi itzatzu oraindanic.

20. An anima, an gorputza,  
 Potencia eta sentiduac,  
 Ecusteaz Jangoicoa  
 Egongo dira aseac.

21. Jangoicoac esaten digu  
 Etsayari barcatzea,  
 Nay ez duenac izango du  
 Seculaco penatzea.

22. Nai badezu gaur eman  
 Aingueruari contentua,  
 Barca guiozu etsayari  
 Ta zurea da Cerna.

23. An da, nere cristaua,

Eliza amaren dotriña,  
 Au eguiñ nai ez duenac  
 Izango du betico miña.

24. Eguin zazu gure esana,  
 Nai badezu salbatu,  
 Jaunaren hitzac dira,  
 Ez ditugu gure pensatu.

25. Ongui ongui bici zaite  
 Beti beti munduan,  
 Guci gucioe gauden  
 Gozo gozoz Ceruan.

26. Adios bada adios,  
 Nere cristau maiteac,  
 Gueldi zaitezte betico  
 Ceruco doayez beteac.

27. Glorian ieus gaitecen  
 Orain gaudenac emen,  
 Ta ala guertatu dedin  
 Canta dezagun amen.



## GOZOAC

MARIA SANTISIMARI BERE CON-  
CEPCIOCO MISTERIOAREN  
HONRAN.



*Mancha batere-gabea  
Zu cerade 6 Maria,*

*Ta dena beti garbia  
Dá Concepcio Zurea.*

Lore ederrez beteric  
Zu ciñan baratzea,  
Ta paraiso librea  
Itzal eta arancetatic;  
Emen atrevituric  
Sartu nayaz suguea  
Utzi zuena choil illic  
Dá Concepcio Zurea.

*Mancha batere gabea etc.*

Iturri aberats Sellatua  
Zu ciñan lembicitic,  
Lucifer cegoan argatic  
Guztiz confuditua:  
Dagoana libratua  
¡O nolaco suertea!  
Aren gaitz gucietatic  
Dá Concepcio Zurea.

Millactan autatua  
 Jangoicoaren amataco  
 Jesusen acenturaco  
 Zu cerade tronua:  
 Gracian fundatua  
 Eta Daviden torrea  
 Inoiz macurtu ez dana  
 Dá Concepcio Zurea.

Zu goiceco argui,  
 Argui asitze bera,  
 Gracia guztiz andian  
 Ciñan guztiz ederra:  
 Ezta atrevitu sagarra  
 Zuri eguitera caltea,  
 Ta arc pozoitu ez duena  
 Dá Concepcio Zurea.

Graciazco illarguia  
 Beti bere betean,

Lembicico instantean  
 Ederra zan zure arguia:  
 Beti cerade za andia  
 Beñere illunie gabea:  
 Ta parerie ez duena  
 Dá Concepcio Zurea.

Goibel-gabeco eguzquia  
 Zu ciñan lembicitie,  
 Gracian concebiturie  
 Cerueoa zan zure arguia  
 Beti izan dana garbia,  
 Beñere jaquin gabea  
 Pecatuaren illuntzea  
 Dá Concepcio Zurea.

Aingueruac, icusirie  
 Zure ventaja andiac  
 Dagozquiz guztia  
 Osoro humillaturie:  
 Bere erreguiñaz pozturie  
 Dá oyen gozoa betea,



Eta ayen festa alegrea  
Dá Concepcio Zurea.

Lurreraño macurturic  
Zuri erreguz gaude gu,  
Patroitzat artzen zaitugu  
Erreguec aguinduric:  
Ta gucioc oraindanic  
Glorian beti ieustea  
Deseatzen deguna guztiz  
Dá Concepcio Zurea.





